



Plazaolako Partzuergo Turistikoa- 2010-07-21

Telleriako tunelaren pareko bidea irekita txirrindulari eta Oinezkoentzako

Plazaolako Natur Bideko Telleria tunelaren ondoan dagoen bidea ireki berri da.

Orain arte, Telleriako tunela berreskuratu gabe zegoenez, oinezkoek eta txirrindulariek Leitza eta Goizueta lotzen dituen Basa Kabi errepidera jeitsi behar izaten zuten eta errepide ertzetik ibili, denbora galduz eta bertatik pasatzen diren autoak jasanez.

Baino, dagoeneko, hori egitea ez da beharrezkoa, Tunelaren ondotik pasatzen den bidearen obrak amaitu baitira. Egokitzapen lanak hilabete hasieran abiatu baziren ere, Plazaolako Partzuergotik denbora luzez bultzatu izan dugun proiektua izan da Telleriako tunelaren berreskurapena.

Azkenean Nafarroako Gobernuak, "Agenda 21" programaren bidez, obrak kostatzen zituen 24.000 euroetatik %40a eta Leitzako Udaletxeak gainontzekoa ordainduz eraman da aurrera berreskurapena eta egun, guztiz erabilgarri daukazue bide berria.





plazaola@plazaola.org

www.plazaola.org